

Astakeri bat salatu nairik

Berriz ere Unamuno ta Loroño-ri buruz

Ez naiz damu gertakizun au salatu bearra. Gaizki egia salatu bearra degu. Okerra, naiz goitik, naiz betik edo naiz ezker edo eskutik etorri, salatu bearra da. Giza-legeak eskatzen du.

Nai nuen zer esana sortu nuan baztarretan, ta zenbat eta giago eragin, orduan eta agiriago gelditzen da errazoiaren indarra. Dana osorik ez argitaratzeak indarra kendu bazion ere, berak utzifako zer-esana probetxugarri izan da.

Aitorzten det sutsu idatzi nuala, baña ezta gutxiagorako. Gaikak bere mamitik ekarren bigun jokatuz eziña. Gañera gauza sutsu ta eraginkorren premian gera. Euskerazko astekari batek epelkerien lapikoa baño zerbait geiago izan bear du. Ori da' D'etxepare-n erara, euskera plazara ateratzeko bidea. ZERUKO-ARGIAK erabiltzen dituan gaikak gure inguru laburraren esparririk ateratzen ez baditugu, bere etorkizuna itotzeko bidera daramagu. Irakurle berrien oiartzunerako izango da bertako gaig aoz-ao erabiltzen badira, ta uste det ori lortu zuala neren lan eker. *Unidad* arratsalde-eroak kate ederra ezarri zion bere ondorio, Luis de Cantabria-k izenpeturik. Ta Unamuno-ren izenari on egin badio ere, ez gutxi ZERUKO ARGIArenari. Bidanitar Ladislao-ren idazki ausartak eta atarikoa kenduta, geientzuenak ez bai dute gatzik, ta ori bezelako euskerazko aldizkari bai aireartzeko, bizkortzeko ta jendearen artean entzunerazitzeko, epel-

keriak astinduz, orrelako lan bizi ta zer esana sortuko dutenak bear dira.

Loroño-k Unamunok in ezutua la zer ikusirik? Or dago kokoa. Unamuno ta Loroño-k zuzenki ez dute zer ikusirik, baña bai gauzak bere opotik atera ta ifuzilikatu dituan giroak. Jakitunak eta deportistak malla berran ez-erik, aurretikoak atzean jartzen dituan giro madarikatu baten egintzak dira. Sportare-tzak erriak jarri duan uste biurrituan emaitza da. Unamunok mundu guzian berakin duan itzalari jaramonik egiteke, bere izenarentzat monumentu baten eskariari buruz ezta-baidaka dabilizaten artean, erdipurdizko sportman (erdipurdizkoa diot bere egintzarik aipagarriena *geografia ezagutzeko «Vuelta a España»* bizikletan bein irabazi zuenagaitik; zentzuz eta jakintzaz España ezagutu, mai-tatu ta goratu zuen Unamuno-ekin konparatze alde) dalakoa-ri monumentua egitea bururatu, aipatu ta aurrera eramane, inork itziki jaso gabe asmo tonto orri kontuak eskatzeko. Era ontan, gaurko ogoera au ez alda nas-garria?

Jakieñen gaudé eragilerik geienak izan zituztela beren erag-ozketak, Kristok orregaitik esan zuan: «Inor ezta bere errian Profeta».

Unamuno-ren kidekoak ziran J. J. Rousseau ta H. Ibsen ere, gaizki ikusiak izan ziran beren errietan, baña gaurko egunean monumentu bikañen jabe dira Ginebra ta Skien. Bakarrik, aiekin il baño len gogoratu ziran

beren erriak, ta gu il eta gero ere uxatzen ari gera gure filo-sofu nagusiena. Urteak alperrik joaten ote dira? Zibilizazioak ez al dio zorrik geien kondaira-tik jaso duan jokabideen espe-rientziari? Ta, guk geuk, ez al ditugu geure buruak zibilizatu-tzat? Orduan, zertan gabiltza?

Lenago esaneri aor auk eran-tzi bearrean naiz, norbaitek ondo ulertu ez bai zuan ere. Luis de Cantabria-k etzuak *Indice* bear bezela irakurri. Apirilleko zenbaki artan, 31-garren orrial-dea ikusi zuan baña ez 17-garrena, *Sobre la «libertad de conciencia»*, Pio Baroja-ri buruz zuzendariak egiña. Bertan aipa-tzen badu Unamuno-ren monu-mentuaren gañean, Baroja-kin gertatua konparatuz.

Ura idatzi nuenetik onera, gauzak oso aurreratuek dijoaz. Galdakano-ko bazkun orrek Euskalerra ta kanpoetako soziede askotara idatzi du diruz-ko laguntza eskatuz. Bizkaiko erriak geienetako tabernetan, suskrizioa irikiz, listak jarri dira dirua biltzeko. Nere begie-ko erriak geienetako tabernetan, suskrizioa irikiz, listak jarri dira dirua biltzeko. Nere begie-ko erriak geienetako tabernetan, suskrizioa irikiz, listak jarri dira dirua biltzeko. Nere begie-ko erriak geienetako tabernetan, suskrizioa irikiz, listak jarri dira dirua biltzeko. Nere begie-ko erriak geienetako tabernetan, suskrizioa irikiz, listak jarri dira dirua biltzeko.

Gauza auk ez aldira arrigarririk? Badegu zer landu gure erri ontan? Zentzu gutxiokak ongi ulertzeko arazoetan ere orrela ibilli bear. Egiak ez omendu indarririk ezjakieñen errian.

J. San Martin

EUSKERAREN GALERA

Prolema izugarri baten aurre-azurre gaudé euskaldunok: gure mintzaira galbidean dugu. Bere atzerapena ez da, ain zuzen, gure denboretakoa, baiñan, gure egunetan artu du gainberarik bildurgarriena. Alderdi batetik liburuak eta aldizkariak—errebistak— argitaratzen ari dira euskeraz, izkuntzalari eta etnologari jakintsuak euskal-az-terpen lanetan murgilduak ari zaizkigu, Euskaltzaindia lanean jo ta ke ari zaigu, eta bestetik, gure mintzaira, gure euskera, gero eta gutxiago itz egiten da.

Euskal-errialdetan euskeraz geiena mintzatu direnak Gipuzkoa eta Zuberoa izan dira orain artean; gure probintzia, esate-rako, oso-osorik egin da gaurdaino euskal-agintasuaren barrutian. Orain, ordea, ez de-zakegu orrelakorik esan.

Negargarria da, benetan negargarria gero, «gaurdaino» esan bearra. Baiñan egia garratz nola uka? Aski da erri-erri joatea argi ta garbi ikusi ahal izateko. Erri euskaldunik jotarenak, nekazarien, artzaien eta arrantza-leen erriak, esaterako, Zaldibia, Leitze, Izpazter, Leketiñ. Atallo ta abar, orain artean euske-ra utsean mintzaten zirenak, gure mintzaira galtzen ari dira. Belaunaldi berriak, aurak, eba-rastasan eder au galtzen ari dira.

Galera mingarri onen sus-traiak askotxo dira, noski. Esko-letan gaztelera utsez erakus-teaz gañera, esan dezagun erru aundia, erru izugarria dutela gurasoek, apaizek eta maixuek eta oezaz gañera fraide eta monjak.

Maiz gertatzen dena da gura-soak euskera beste izkuntzarik ez jakitea eta seme-alabak ez itzik asmatzea gure mintzairan. Izan al-diteke zorrigaitz aundia-gorik fameli batean gurasoak eta aurak ez alkar ulertzea baiño izkuntza diferentetan min-tzatzen direlako?

Zergatik gertatzen da au? Ba-dira euskaldun asko beren izkuntzak ezteratoko baiño ez duela uste dutenak eta ernega-tzen dute beren euskal-izateaz. Pentsakera gorrotagarri au na-berran egiten da, guraso eus-kaldunak saiitzen diranean ber-ren semeek euskera ez erakus-

ten. Alaxe bidaltzen dituzte ikastetxe eta eskoletara eta be-roien asmoetan egin oi da ikas-leei euskera ahaztu azteko ale-gianak egitea eta batuzaten be-raganako gorrotoa sortu-aztea ere.

Gurasuok amaika astakeri esaten dituztelarik erderaz ari diranean, zazpi ahalak egiten dituzte beren aurrei erderaz egiteko, ez dakiten izkuntzan mintzo baitira. Ez ote dira oar-zen apika nobre arren aint-ztinean parregarizko papera egiten ari direla?

Izan ere, benetan par-eragin-garri izan oi da pitxiz betetako andreak utsegitez mintzatzen ikustea erderaz ari diranean. Cervantes'en mintzaira kupiga-rrial Baiñan, andretxuok bai kontentuz beren buruak geiagot-zat itziritzi. Gaixok, ordea, ez-tira oartzten denak parrez ari zaizkiela.

Apaiz batzuek ere erantzuz-kuzin aundia dute euskeraren gaitzeaz. Apaizak euskal-min-tzairako errietan sermoiak eta dotriña-erakusketak euskeraz egiten ezpaldin ba'ditu euskera galduko da berrietan. Bestalde, erri aundi xamarretan goiz-goi-zeko mezatan bakarrik predi-katzen dute euskeraz eskuarki. Onela, euskeraz mintzaten di-ren kristau onak Jaungoikoak-ren itza entzun nai baldin ba'dute, goizean goiz jaikitzea beartuak daude. Orrela irabazi-ko al-dute zerua!

Maixuak, eskuarki—jenera-lian—, ez dakite euskerarik. Errealitate au berez arrisku-garri da, baiñan batuzatan arrisku-au aundiagotzen da, maixuok beren agintaritzaz baliaturik aurrei euskeraz egiten galaraz-ten dienean. Ba ote ditek adimen gabekeri aundiagarri?

Baiñan, euskerari kalterik eta ondamenik aundienak egiten dienean emakumeak dira eta emakumeen barrutian monjak. Bai ama izpirituak ala nola ezur aragizkoak, lenago aipatu-tako kausez gañera (euskaldun senarrak otxanak baigera gure emazteen esanetara) dira euskeraren galgarriak. Berengan egin ditek ere erremedioa. Ala izan dedilla itxoin dezagun.

Federico de Zabala'k

DIZDIRAK

Izpiritutik sortzen dana

Aste batzuek dirala artekari beronen orrialdietan euskalzain ta sendagile dalako Apat Etxe-garne jaunak gauza oso jakin-garri bat esaten zigan: Gipuzkoan Unibersidade-izpirituaren bear bearran gerala. Bat nator osotero adixkode jator orrekin.

Ortega y Gasset'ek bere «Misión de la Universidad» izeneko ensaioan zionez, Unibersidadeak bi jo-mugei batean jarraitu bear die. Lenengo, gazteak ofizio-nagusietarako gaitzea ta irakastea. Bigarren, lenengoa bezain premiatsua, kultura ta jakinduriaren sukuna ta itur-buru bizia izatea.

Zoritzarrez gaurkoan gente-tako ikasleak gibarren elburua alde batera utzirik unibersidade titulu-fabrikatuz ikusi oi dute bakarrik. Antziñoakoak or-dea jakintzaren bideari ekin zioten, ez sari-dirua irabazteko, baitzik guziok barruan darama-gun mixerioarekin burrukan ibiltzeko naitasun bizi orren in-darrez bultzatuak.

Unibersidade izpiritua, zer da?

«Erbia baño erbi-eizatzea be-ra geiago estimatzea». Adi nai

dezanak adi beza. Ontaz Claude Bernard fisiolojista prantesaren istorioa agertzen digu Eugenio d'Ors zerituz gizon ospetsu arrek.

Dirudienez jakintsu ura ogei ta bostxo urteetan ia diru-tren-narik gabe bere laboratorio apal-apelean surma-billatze sako-netan aritu omen zan eta bai eun agerketa berri arrigarri egin ere.

Alako batean, norbaitek Napo-leon irugarrenari Bernard profesorearen merituak jakin arazi zizkion.

Emperadorea ez ergela izan eta berak andik egun batzudara Claude Bernard jauregi-jai ba-tera gomitatu zuen.

Festa artan jakintsua ta em-peradorea txoko batean marma-raka alkar jardun ziran luza-roan.

—«Monsieur Bernard, zure Fisioloji-billatze miragarrien be-rria eldu zait-eta... esango al zenidake Fisioloji ori zer dan?»

Eztakigu galdera au erantzut-eko nola konponduko zan Monsieur Bernard baiñan solas onetik oso pozik atera zan di-ru dienez.

Emperadoreak, esku-zabal ta gailendu naia baitzan —bene-tako emperadoreari dagokion bezela— tresna guziz ornitatu-tako beste laboratorio berri aundi bat Claude Bernard'i eraiki zezaioten bere sarbitza-leerri agindu zien. Esan ta egin. Laster baño lasterrago lantegui berri ederra antolatu ta bere li-buru-tresna guzietan ara dijoa jakintsua.

Baiñan, begira gauzak nola di-ran! Egun bertan etorria buka-tu zitzaion eta agerketa berriak ere bai. Ez al da egia komodi-dade sobera ta neke-samiñaren arantz faltaz geranean jakin-tza-izpiritua bereala itzaltzen zaigula?

Alegia, arestian esan deda-nak ez du esan nai jakintzaren gai-ñan dirua bear eza izan bear dunik. Dirua oso bearra da, bai orixe, baiño beste gauza bearra-go: izpiritua.

Trukatze au zillegi balitzaigu gai ontan Maixuaren itza onera erakarri genezake ere: «Aragi-tik sortzen dana aragia da ta izpiritutik sortzen dana izpiri-tua».

Carlos Santamaría

«Seaska'n»

«SEASKA'N»ditudu, jantzi egokiak zure seme edo alabarentzako: azpiko ta gañeko; bear dezun gutzia ontxe. Egiñak ala neurriz nai dezun bezela.

Emakuntzat ere badituzte bertan blusak, lergalezko gonak, mantillak, buruzapiak eta abar.

Alameda, 24. S. Jerónimo iskiñan

Urrutizkiña 1-18-54

DONOSTIA'N

"ZERUKO ARGIA" - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN

FRANQUEO CONCERTADO N.º 37 - 21

MANUELA ZUJALICA

Organizado de Aranzazu

RAUC